Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

6177

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 22koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Pastguren SL enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematen diona, Zalla eta Güeñesko udalerrietan (Bizkaia) papera egiteko kraft ore zuritua fabrika dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 28an, Rubén Rafael Gómez Tomás jaunak, Pastguren SL enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Zalla eta Gueñeseko (Bizkaia) udalerrietan paper-orearen fabrikazioaren jarduerarako Eskaerarekin batera proiektuak Zalla eta Gueñeseko hirigintza-plangintzekin duen bateragarritasunari buruzko 2005eko azaroaren 22ko eta 2006ko urtarrilaren 25eko udal-txostenak, hurrenez hurren, bidali ditu sustatzaileak, eta ondorengo agiri teknikoak:

– Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua.

Erreferentzia-baimena eskatzeko orduan, Pastguren SL enpresak, besteak beste, Zallako udalaren jarduerarako baimena zuen (1989ko otsailaren 28koa) eta Gueñeseko udalarena (1993ko maiatzaren 12koa) ere bai. Aipatutako baimenak paper-orea fabrikatzeko eman ziren. Halaber, enpresa sustatzaileak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera isurketak egiteko dagokion baimena zuen, 2004ko apirilaren 6koa, eta urak hartzeko dagokion baimena, 2003ko apirilaren 10ekoa, hondakin geldoen ekoizleen erregistroan eman zuen izena 2006ko martxoaren 8an, eta ondorengo luzapenak eta berrikuntzak egin dira.

2007ko urtarrilaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, ingurumen organoaren bidez proiektuaren gaineko eraginaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki Zallako Udalari, Gueñeseko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DEMEDIO AMBIENTE Y ORDENACION DEL TERRITORIO

6177

RESOLUCIÓN de 22 de abril de 2008 del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de fabricación de pasta kraft blanqueada para papel, promovida por Pastguren, S.L. en los términos municipales de Zalla y Güeñes (Bizkaia).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 28 de diciembre de 2006, D. Rubén Rafael Gómez Tomás, en nombre y representación de Pastguren, S.L., solicitó ante el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de fabricación de pasta para papel en los municipios de Zalla y Güeñes (Bizkaia). La solicitud se acompañaba de los informes municipales relativo a la compatibilidad del proyecto con los planeamientos urbanísticos de Zalla y Güeñes, con fecha 22 de noviembre de 2005 y 25 de enero de 2006 respectivamente, y de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto básico (diciembre 2006).

– Resumen no técnico (diciembre 2006).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Pastguren, S.L. tenía, entre otras, licencias de actividad de fecha 28 de febrero de 1989 del Ayuntamiento de Zalla y de 12 de mayo de 1993 del Ayuntamiento de Güeñes. Las citadas autorizaciones se concedieron para la fabricación de pasta para papel. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a colector del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia de 6 de abril de 2004, y de captación de aguas de 10 de abril de 2003, inscripción en el registro de productores de residuos inertes de 8 de marzo de 2006, y posteriores ampliaciones y renovaciones.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 23 de enero de 2007 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el órgano ambiental se acuerde el trámite de información pública del proyecto, en concreto al Ayuntamiento de Zalla, al Ayuntamiento de Güeñes,

Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari.

2007ko martxoaren 29an, ingurumen organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko uztailaren 23an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun baliodunеko epean, Pastguren SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2007ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Zalla eta Gueñeseko Udalei, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 2an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Pastguren SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen proposamena gehituz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -linea guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori

al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia.

Con fecha 29 de marzo de 2007, el órgano ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 23 de julio de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Pastguren, S.L. en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Bizkaia, ambas con fecha de 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en dos periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que no se ha presentado alegación alguna.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2007 informe a los Ayuntamientos de Zalla y Güeñes, al Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia y al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 2 de abril de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Pastguren, S.L. incorporando la propuesta de resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de producción que aun sin estar enume-

aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Pastguren SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; kolektorera isurketak egiteko baimena; ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak. Era berean, eskumeneko beste administrazio eta organismo batzuk kasuan kasu txostenak luzatuz egindako parte-hartzea egiaztatuko da espedientean.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udal lizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Pastguren SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Zalla eta Gueñeseko Udalen eta Osasun Sailaren txostenak.

rados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha Ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Pastguren, S.L. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a colector y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo, constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Pastguren, S.L. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco, incorporándose, con el resultado que obra en el expediente, los informes de los Ayuntamientos de Zalla y Güeñes y del Departamento de Sanidad.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikatzekoa den alorreko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2001eko abenduko ore eta paperaren fabrikazioaren «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry» BREF txostenaren edukiak kontuan hartu dira.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Pastguren SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da, eta organo hau da ingurumeneko baimen integratu hau emateko eskuduna da, aipatutako araudiaren 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuko 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 31n emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Zallako (Bizkaia) udalerriko Aranguren auzoa, z/g duen eta IFK: B-48954622 zenbakia duen Pastguren SL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, papera egiteko kraft ore zuritua fabrikatzeko jarduerarako, eta Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituko ditu.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta el uso de las mejores técnicas disponibles. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF de fabricación de pasta y papel «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry», de diciembre de 2001, de la Comisión Europea.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente se suscribió propuesta de resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Pastguren, S.L.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 31 de marzo de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de Junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder a Pastguren, S.L. con domicilio social en el barrio Aranguren, s/n, del término municipal de Zalla (Bizkaia) y CIF: B-48954622, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de fabricación de pasta kraft blanqueada para papel, en los términos municipales de Zalla y Güeñes, con las condiciones establecidas en el apartado Segundo de esta Resolución.

Jarduera uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 6.1.a kategorian, «Egurra edo zuntzezko beste gai batzuk oinarrian hartuta paper-orea fabrikatzeko industria-instalazioak».

Pastguren SL enpresaren industria-jarduera kraft ore (edo «sulfato») zurituaren fabrikazioan datza eta, xede horretarako, eukaliptozko zuntz primarioak bakarrik erabiltzen dira.

Honakoak garatzen dituen prozesu nagusiak:

– Lehengaiak jasotzea: egurraren parke bat dago eta bertan jasotzen dira lehengaiak eta gai osagarriak. Lehengai nagusia Eucaliptus globulus espezieko egurrezko enborrak dira eta kamioietan jasotzen dira. Aipatutako ibilgailuak baskulan pisatzen dira eta, era berean, egurraren dentsitatea neurtzen da, dentsimetro bat baliatuz. Ondoren, enborrak zuraren parkean biltegiratzen dira, aire librean, prozesuan sartu arte.

– Lehengaiaren tratamendua (azala kentzea eta ezpaltzea): azalarekin jasotzen diren enborrei azala kendu behar zaie prozesuan sartu aurretik. Horretarako, enborrei azala kentzeko danborra elikatzen duen mahai baten gainean jartzen dira. Puntu honetan sortzen diren azalak azal-biltegi edo -silo batera eramaten dira biomasa-galdaran erretzeko, kogenerazio-prozesuaren barruan. Hori guztia egin ondoren, beste elikadura-mahai batera eramaten dira. Bertan uzten dira azala kendutako enborrak eta azalik gabe jasotakoak. Instalazioak urez betatako ureztailu txiki batzuk ditu, uhal elikatzailean errazago garraiatzeko.

Handiegiak diren enborrak baztertu eta makina hidrauliko batean luzetara mozten dira. Enborrak zatikatzeko makinan sartu eta bertan zatitzen dira. Bahe bat erabiliz aukeratzen dira egosketa-prozesurako egokiak diren ezpal-tamainak eta handiegiak diren enborrak rechiper-ean sartzen dira, eta zatirik txikienak, berriz, biomasaren biltegira eramaten dira, kogenerazio-prozesuan sartzeko.

– Ezpalak biltegiratzea (ezpal-siloa): ezpal-tamaina egokia lortu ondoren, ezpal-siloan biltegiratzen dira guztiak. Silo horrek birika-funtzioa betetzen du, gaueko txandan eta asteburuetan lehengaia egongo dela bermatuz. Hortik egosketa-zonara eramaten dira, uhal garraiatzailean hauek ere, digestoreak elikatzeko. ekoizpenaren eskakizunak kontuan hartuta.

– Egostea eta garbitzea: ezpal-silotik bost digestoreak edo lixibagailuak (lan etena egiten dutenak) elikatzen dituzte ezpalek. Digestoreetan egosketa-

La actividad se encuentra incluida en la categoría 6.1.a «Instalaciones industriales destinadas a la fabricación de pasta de papel a partir de madera o de otras materias fibrosas» del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La actividad industrial de Pastguren, S.L. se centra en la fabricación de pasta kraft (o «al sulfato») blanqueada para papel, utilizando únicamente fibras primarias de eucalipto.

Los procesos principales desarrollados son los siguientes:

– Recepción de materia prima: se dispone de un Parque de Madera, área destinada a la recepción de las materias primas y auxiliares. La materia prima principal consiste en troncos de madera de Eucaliptus globulus, y se recepcionan en camiones. Dichos vehículos son pesados en báscula, y se mide asimismo la densidad de la madera mediante un densímetro. Posteriormente, los troncos se almacenan en el parque de madera, a la intemperie, hasta que son introducidos en el proceso.

– Tratamiento de la materia prima (descortezamiento y astillamiento): los troncos que se reciben con corteza, deben ser descortezados previamente a su introducción en el proceso, para ello se depositan en una mesa que alimenta al tambor descortezador de troncos. Las cortezas que se generan en este punto se llevan a un almacén o silo de cortezas para ser quemados en la caldera de biomasa dentro del proceso de Cogeneración. Después de esta instalación hay otra mesa de alimentación donde se van depositando los troncos descortezados, y los que se han recibido sin corteza. La instalación dispone de unas pequeñas regaderas con agua para facilitar el transporte en la cinta alimentadora.

Los troncos demasiado grandes son rechazos, y se cortan longitudinalmente en una máquina hidráulica. Los troncos son conducidos a la máquina troceadora donde se trocean y se seleccionan mediante un tamiz los tamaños de astilla adecuados para el proceso de cocción, siendo los trozos de tamaño demasiado grande introducidos al rechiper, y los trozos demasiado pequeños, enviados al almacén de biomasa para entrar en el proceso de cogeneración.

– Almacenamiento de astillas (silo de chips): una vez conseguido el tamaño de astilla adecuado, estas se almacenan en el Silo de Chips. Este silo cumple la función de pulmón para garantizar la disponibilidad de materia prima durante el turno de noche y los fines de semana. De ahí se irán conduciendo a la zona de cocción, también mediante cinta transportadora, para alimentar a los digestores en función de los requerimientos de producción.

– Cocción y lavado: desde el Silo de Chips, las astillas van alimentando los cinco digestores o lejiadoras que trabajan en discontinuo. En los digestores,

lixiba edo lixiba zuria erabiltzen da egurra egosteko, tenperatura jakin batera. Prozesuan birsortutako lixiba zuriak eta ondoren deskribatzen den garbiketa-prozesutik lortutako lixiba beltz ahulak osatzen dute egosketa-lixiba. Nahasketa horretatik lortutako lixibaren kalitatearen arabera, erreaktiboak eta gehigarriak gehitu beharko dira, prozesurako nahasketa egokia lortzeko. Prozesuaren puntu honetan askatzen dira egurraren zelulosa-zuntzak.

Digestore bakoitzaren egosketa amaitu eta gero, tanga batean (Blow Tank) husten da. Une honetatik aurrera lan jarraitua egiten da. Arazketa lodiko fase bat egiten da, Knoter-ean, eta arazketa xahuko beste fase bat egiten da, serieko depuradoretan, eta baztertutako zatiak alde batera uzten dira, eta egosi gabe dauden zatiak, berriz, digestoreetara sartzen dira berriro.

Ore gordina garbitu egin behar da. Prozesu hori garatzeko, serieko hiru iragazki birakari erabiltzen dira, ur bero eta azidozko korrontearen kontra jarrita (ur hori zuritze-prozesutik dator gehiena). Garbiketa beharrezkoa da ore gordina, edo lixiba beltzaren orea, lortzeko. Ore gordina bi tangetara eramaten da: tanga batek aurreko egosketa-prozesuko digestoreak elikatzeko balio du eta besteak lixiba zuria berreskuratzeko prozesua elikatzeko. Garbituta dagoen ore gordina ore gordinaren dorrera.

– Zuritzea: hiru etapek osatzen dute fase hau: klorazioa, erauzketa eta dioxidoa dira, hain zuzen ere. Lehenengo etapan kloroa eta kloro dioxidoa erabiltzen dira. Klorazio-erreakzioa 60 ºC-ko tenperaturan gertatzen da, 30 minutuko atxikitze-denborarekin. Jarraian garbiketa bat egiten da. Erauzketaren etapan sosa, ur oxigenatua eta oxigenoa erabiltzen dira, 80 ºC-ko tenperaturan, 120 minutuko atxikitze-denborarekin. Beste garbiketa bat egiten da ondoren. Hirugarren etapa oxidatzailean kloro dioxidoa erabiltzen da, 79 ºC-ko tenperaturan, 210 minutuko atxikitze-denborarekin. Ondoren arazketa egin behar da. Elementu kutsatzaileen zelulosa-zuntzak prestatzen dira bertan, zentrifugazioaren bitartez, eta loditu egiten dira ondoren.

Jarraian garbitu egiten dira, ur-iragazki bat erabiliz, eta orduan lortzen da ore zuria eta ore zuriaren dorrean gordetzen da. Ore zuriak zuritasun-kontrolak eta kalitate-parametroen kontrolak gainditu behar ditu zuritze-prozesuan, zuritze-instalazioan kudeaketa egokia egingo dela bermatzeko.

– Bidaltzea eta biltegiratzea: bi modutan egiten da bidalketa: tissue paperaren bi makinekin erdi-integratua, batetik, eta, kasu horretan, orea tutu bidez eramaten da enpresa-bezeroarengana; eta % 50ean lehortutako ore lehorrezko orri gisa, bestetik, errazago garraiatzeko. Bidalketak egiteko bigarren modu horri dagokionez, zelulosa-orea ore-prentsara eramaten da. Bertan prentsaketa bidez lehortzen da, hezetasunaren

la madera se va cociendo en el licor de cocción o licor blanco a una determinada temperatura. El licor de cocción es licor blanco regenerado del proceso, más Licor Negro débil obtenido del proceso de lavado descrito a continuación. Según la calidad del licor obtenido con la mezcla, se deberá añadir reactivos y aditivos para conseguir la mezcla óptima para el proceso. En este punto del proceso se van a liberar las fibras de celulosa de la madera.

Una vez finalizada la cocción de cada digestor, este se vacía a un tanque (Blow Tank), trabajando en continuo a partir de este punto. Se realiza una fase de depuración gruesa, en el Knoter, y otra depuración fina por medio de depuradores en serie donde se separan los rechazos en forma de nudos y los incocidos, que son reintroducidos en los digestores.

La Pasta cruda se somete a lavado. Este proceso se realiza con tres filtros rotativos en serie a contracorriente con agua caliente y ácida procedente, en su mayor parte del blanqueo. Mediante este lavado se separa la denominada Pasta Cruda, del Licor Negro, el cual se conduce a dos tanques: uno del cual se alimentan los digestores del proceso de cocción anterior, y un tanque que alimenta un proceso de recuperación del licor blanco. La Pasta Cruda ya lavada se almacena en la Torre de Pasta Cruda previo a la fase de Blanqueo.

– Blanqueo: esta fase se realiza en tres etapas, llamadas Etapa de Cloración, de Extracción y Dióxido. Para la primera etapa se utiliza cloro y dióxido de cloro. La reacción de cloración debe producirse a una temperatura de 60 ºC, y un tiempo de retención de 30 minutos. A continuación se efectúa un lavado. Para la etapa de extracción se utiliza sosa, agua oxigenada y oxígeno a temperatura de 80 ºC y durante un tiempo de retención de 120 minutos. Posteriormente se efectúa otro lavado. Para la tercera etapa oxidante se utiliza dióxido de cloro, a temperatura de 79 ºC y 210 minutos de tiempo de retención. De aquí se pasa a depuración donde se separan las fibras de celulosa de los elementos contaminantes, por centrifugado y luego se procede a su espesamiento.

A continuación se realiza un lavado en un filtro con agua, obteniendo la Pasta Blanca que se almacena en la Torre de Pasta Blanca. La Pasta blanca se somete a controles de blancura y otros parámetros de calidad durante todo el proceso de blanqueo para garantizar la correcta gestión de la planta de blanqueo.

– Expedición y almacenamiento: la expedición se realiza de dos formas: semi-integrada con dos máquinas de papel tisú, la pasta es conducida por tubería hasta la empresa cliente, y en forma de hojas de pasta seca al 50% para facilitar su transporte. Para esta segunda forma de expedición la pasta de celulosa se lleva a la zona de prensapastas donde se seca por prensado hasta un 50% de humedad, se acondiciona

% 50 kendu arte, ore-orrien forma ematen zaio eta, amaitzeko, fardo zumiztutan jartzen dira ore-orriak. Orea biltegiratzeko zona bat dago, eta merkatuaren eskaeraren arabera, bertan dagoen orea erabiltzen da bidalketak egiteko.

– Produktu kimikoak berreskuratzea: egosketa-prozesuan lortutako lixiba beltza lurrungailu batzuetara eramaten da, lixiba beltzak duen solido-edukia kontzentratzeko. Lixiba beltz kontzentratua lixiba beltzaren galdarara eramaten da. Frakzio organikoa erre egiten da bertan, eta beroa sortzen da; eta frakzio inorganikoa aipatutako galdararen barruan gordetzen da, lixiba bigun ahularekin nahastuta, lixiba berdea sortzeko.

Lixiba berdeari lohiak arazteko prozesua egiten zaio eta, ondoren, kare biziarekin nahasten da. Une horretan egiten dira karea hiltzeko prozesua eta kaustifikazio-prozesua, eta egosketak egiten jarraitzeko lixiba zuria lortzen da, alde batetik, eta kaltzio karbonatoa, bestetik; eta hainbat arazketa-prozesu garatu ondoren, kare-labera eramaten da, bertan kaltzinatu eta kare bizia, produktu kimikoak berreskuratzeko zikloa ixteko beharrezkoa dena, lortzeko.

Gainera, kogenerazio-instalazio bat dago: lurrun birberotuzko bi galdara eta lurrun-turbina bat, korronte elektrikorako sorgailu batekin, ditu. Ekoizpen-instalazioaren ekoizpen-gaitasuna 72.000 t/urteko da.

Ekoizte-prozesurako erabilitako energia-baliabideak energia elektrikoa, gas naturala, propanoa, fuel-olioa eta gasolioa dira. Fabrikaren funtzionamendu arruntean energia elektrikoa erabiltzen da eta urtean 38.960.124 kwh kontsumitzen dira. Gas naturalaren kontsumoa lurruna sortzeko gas-galdaran egiten da eta urtean 61.023.336 kwh kontsumitzen dira. Propanoa erabiltzen da kare-labea martxan jartzeko eta urtean 420 kg kontsumitzen dira. Bestalde, kare-labean fuel-olioa kontsumitzen da eta urtean 2.445.234 kg-ko kontsumoa egiten da; gasolioa barruko garraioan erabiltzen da eta urtean 105.776 litro kontsumitzen dira.

Udal sareko ura kontsumitzen da zerbitzu sanitarioetarako eta Kadagoa ibaitik hartutako ura erabiltzen da gainerako instalazioetarako: egurra moztea, egostea, orea garbitzea eta kimikoak berreskuratzea. Udal sareko uraren kontsumoari dagokionez, 4.000 m^3/urteko kontsumoa erregistratzen da; ibaitik hartutako uraren kasuan, berriz, urtean 4.090.000 m^3 kontsumitzen dira. Ur horren zati bat Virtisú enpresak kontsumitzen du, ekoizpen-prozesuan zein giza kontsumoan.

Instalazioan bi isurketa-puntu daude. Batean industria-urak, ur sanitarioak eta euri-urak daude: kutsadura dakarte herrestan eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorera zuzentzen dira, urteko

en forma de hojas de pasta y finalmente se disponen en fardos flejados. Existe una zona de almacenamiento de pasta en espera de ser expedida en función de la demanda del mercado.

– Recuperación de productos químicos: el licor negro obtenido en proceso de cocción se envía a unos evaporadores, en los que se concentra el contenido en sólidos de dicho licor. Este licor negro concentrado es enviado a la caldera de licor negro, donde la fracción orgánica se quema produciendo calor, y la fracción inorgánica es recogida en el fondo de dicha caldera y mezclado con licor blando débil para la generación de licor verde.

El licor verde se somete a un proceso de depuración de lodos, y posteriormente se mezcla con cal viva, teniendo lugar los procesos de apagado y caustificación, en el que se obtiene, por un lado licor blanco para continuar con las cocciones, y por otro lado carbonato de calcio, que tras varios procesos de depuración se envía al horno de cal para su calcinación y obtención de cal viva, necesaria para cerrar el ciclo de recuperación de productos químicos.

Además se dispone de una instalación de cogeneración, formada por dos calderas de vapor recalentado y una turbina de vapor con su generador de corriente eléctrica. La planta productiva tiene una capacidad de producción de 72.000 t/año.

Los recursos energéticos utilizados para el proceso productivo son energía eléctrica, gas natural, propano, fueloil y gasóleo. La energía eléctrica se utiliza en el funcionamiento general de la fábrica, suponiendo un consumo anual de 38.960.124 kwh. El consumo de gas natural se destina a la caldera de gas para generación de vapor, suponiendo un consumo anual de 61.023.336 kwh. El propano se utiliza para las puestas en marcha del horno de cal, suponiendo un consumo anual de 420 kg. Por su parte el fuel-oil se consume en el horno de cal, suponiendo un consumo anual de 2.445.234 kg, y el gasóleo se utiliza en el transporte interno con un consumo anual de 105.776 litros.

Se consume agua de la red municipal para servicios sanitarios, y agua de captación del río Kadagua para el resto de instalaciones: corte de madera, cocción de la misma, lavado de la pasta y recuperación de químicos. El consumo de agua de la red municipal asciende a 4.000 m^3/año, mientras que el agua captada supone un consumo de 4.090.000 m^3/año. Parte de esta agua es consumida por Virtisú tanto en el proceso productivo como para el consumo humano.

En la planta se localizan dos puntos de vertido, uno de aguas industriales, sanitarias y pluviales que arrastran contaminación con destino al colector del Consorcio de aguas Bilbao-Bizkaia, con un caudal de

3.400.000 m³-ko emaria dutelarik; bestean euri-ur garbiak daude eta Kadagoa ibaira zuzentzen dira.

Instalazioan sortzen diren hondakin ur industrial, ur sanitario eta euri-ur kutsatuen tratamendurako hondakin-uren araztegi bat dago. Homogeneizazioa, malutapena, dekantazioa, lohiak loditzea eta pH-a egokitzea barne hartzen dituen tratamendu fisiko-kimiko bat egiten da araztegi horretan eta egunean 16.800 m³-ren tratamendua egiteko gaitasuna du. Araztegi honetara Virtisú enpresan sortutako isurketa iristen da halaber.

Instalazioan atmosferara isurketak egiten dituzten 5 foku daude, gas-galdararena, kare-labearena, lixiba beltzaren galdararena, biomasaren galdararena (azalak) eta dissolving-tximiniarena. Tratamendu-sistemari dagokionez, hiru fokutan hauspeakin elektrostatikoak daude, eta biomasa-galdarekin erlazionatutako fokuan zikloi bat dago.

Sortutako hondakin arriskutsu nagusiak substantzia arriskutsuak, disolbatzaile erabilia, olio erabilia eta laborategiko erreaktiboak eduki dituzten ontziak dira.

Ekoizpen-prozesuetan «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry» 2001eko abenduko BREF agiriko teknika onenen erabilera barne hartzen du, hala nola: egurrari lehorrean azala kentzea, egosketa-prozesu eraginkorra, orearen garbiketa eta arazketa eraginkorra, ur alkalinoen berrerabilera, lurrunketa-instalazioetako kondentsatuen berrerabilera, lixiba beltza biltegiratzea, hozte-ur garbien berrerabilera, hondakin-uren tratamendu primarioa, berreskuratze-galdaretako SO2 isurketen kontrola (materia lehorraren kontzentrazio altua duten lixiba beltza erretzen da), galdara osagarrien CO2 isurketak murriztea, biomasa edo gas naturalarekin elikatuz, berreskuratze-galdaretan hautsisurketak murriztea, hauspeakin elektrostatikoaren bitartez, prozesuan sortutako azal-hondarrak eta zerrautsa biomasa-galdaran erraustea, biomasa-galdarako errautsen kanpo-balorazioa.

Bigarrena.– Pastguren SL enpresak Zalla eta Gueñeseko udalerrietan papera egiteko kraft ore zuritua fabrikatzeko jarduerarako ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Pastguren SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean

3.400.000 m³ anuales, y otro de aguas pluviales limpias con destino al río Kadagua.

Para el tratamiento de las aguas residuales industriales, sanitarias y pluviales contaminadas, que se generan en la instalación, se dispone de una Planta Depuradora de Aguas Residuales que realiza un tratamiento físico-químico de homogeneización, floculación, decantación, espesamiento de fangos y ajuste de pH, con una capacidad de tratamiento de 16.800 m³/día. Esta depuradora recibe, asimismo, el vertido generado en Virtisú.

La instalación cuenta con 5 focos de emisión a la atmósfera, asociados a la caldera de gas, al horno de cal, a la caldera de licor negro, a la caldera de biomasa (cortezas), y a la chimenea del dissolving. Como sistemas de tratamiento, se cuenta con precipitadores electrostáticos en tres de los focos, además de un ciclón en el foco asociado a la caldera de biomasa.

Los principales residuos peligrosos generados son envases que han contenido sustancias peligrosas, disolvente usado, aceite usado y reactivos de laboratorio.

Los procesos productivos incorporan las mejores técnicas disponibles, recogidas en el documento BREF de aplicación «Reference Document on Best Available Techniques in the Pulp and Paper Industry» de diciembre de 2001. Estas mejores técnicas disponibles consisten en el descortezado de la madera en seco, proceso de cocción eficiente, lavado y depuración eficiente de la pasta, reutilización de las aguas alcalinas, reutilización de los condensados de la planta de evaporación, almacenamiento del licor negro, reutilización de las aguas limpias de refrigeración, tratamiento primario de las aguas residuales, control de las emisiones de SO2 en las calderas de recuperación quemando en ellas licor negro con una elevada concentración de materia seca, reducción de las emisiones de CO2 en las calderas auxiliares alimentándolas con biomasa o gas natural, reducción de las emisiones de polvo en las calderas de recuperación mediante precipitador electrostático, incineración en la caldera de biomasa de los restos de corteza y serrín generados en el proceso, valorización externa de las cenizas de la caldera de biomasa.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de actividad de fabricación de pasta kraft blanqueada para papel, promovido por Pastguren, S.L. en los términos municipales de Zalla y Güeñes.

A) Pastguren, S.L. remitirá a la Viceconsejería de Medio Ambiente cualquier modificación de los datos facilitados respecto al responsable de las relaciones con la Administración.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconse-

dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Pastguren SL instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte Ebazpen honetan ezarritako balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2. Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Pastguren SL instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

jería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

La planta Pastguren, S.L. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

